



206. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko URTARRILA

www.baleike.com



JOXE MANUEL, LEHEN PERTSONAN

**Bere autobiografia aurkeztu
du Joxe Manuel Manzidorrek.
Joseba Ossa lagun minak lagundu
digu bere barne bizitzara
hurbiltzen.**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60




Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330



industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

BALEIKE 206

AZALA J.M. Manzisor



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi,

Xabier Azkue, Gurenda Serrano.

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietia eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

6

baleike +

JOXE MANUEL MANZISIDOR: KONTATU EZIN (OMEN) DIRENAK

4

hitz-tantak

AITOR MANTEROLA

16

erreportajea

'MOTXO':

ERANTZUNEN GARAIA

25

elkarriketa

ZUMAIAKO I.

TXAKURKROSA

29

agenda

ZINE-FORUM

30

bertso xorta

MADDI GALLASTEGI

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udal



“Futbolaz asko hitz egiten da baina futbolari buruz oso gutxi”

Euskara, kazetaritza eta futbola, bere hiru pasioak proiektu bakarrean batzeko bidea aurkitu du Aitor Manterolak www.futbolmama.com webgunearekin. Futbolaren mamian sakondu nahi dutenei zuzendutako Interneteko leiho berria izango da.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA




Estreinaldirako edukiak prestatzen harrapatu dugu Aitor Manterola. Normalean bera da elkarriketatzailerak atal honetan. Orain, goan galderei erantzutea egokitu zaio.

Zer da futbolmama.com?

Izenak berak adierazten du futbolaren mamia azaldu nahi duen webgunea dela. Alde batetik, espezializatua da, entrenatzaileentzat edo futboleko sakondu nahi duenarentzat. Bestetik, eguneko albisteak emango ditugu. Eta hirugarren hanka izango litzateke klubei zuzenduriko aholkularitza zerbitzua: entrenatzaileen formakuntza, partiden bideo analisia... Atal historiko bat ere izango du.

Nola okurritu zitzaizun proiektua?

Entrenatzaile ikastaroak egiten ari nintzela sortu zitzaizun ideia, duela pare bat urte.



Mikel Labaka jokalaria eta biok joaten ginen Donostiara kotxean, ikastarora, eta joan etorri horietan askotan hitz egin genuen euskarazko materiala falta zela, hutsune hori zegoela. Zerbait egin beharko litzatekeela. Buruan ideia horrekin gelditu nintzen. Duela urte eta erdi *Berria*-k beka bat ateratu zuen euskara teknologia

berrietan bultzatzeko eta orduan behartu nuen neure burua ideiarri forma ematera. Horrela sortu zen.

Beste hizkuntza batzuetan badaude erreferentziako webguneak, baina euskaraz dagoen lehena izango da.

Blog batzuk badaude, kazetari edo entrenatzaile batzurenak, baina lehen webgunea izango da. Euskaraz sustatzeko proiektua da, azken finean, euskarak sarean duen presentzia areagotzeko.

Futbolaz asko hitz egin eta idazten da komunikabideetan.

Futbolaz asko hitz egiten da baina futbolari buruz oso gutxi. Azkenean, futbola aitzakia da beste zenbait kontuz hitz egiteko. Futbola, azken finean, kirol bat da, bere ezaugarri propioak dituen. Horri buruz aritu nahi dugu guk, gure webgu-

nera datorrenak futbolaren mamia ezagutzeko aukera izan dezan.

Pluralean ari zara baina ideia zurea da. Nortzuk osatzen duzue taldea?

Idea nirea da, bai. Neuk garatu dut, baina orain beste hiru lagun ere bildu dira proiektura: Mikel Arregi azkoitiarra, futbolari profesionala izandakoa; Aitor Zulai, Lagun Onakeko entrenatzaile izandakoa; eta Oier Agirrezabalaga, prestatzaile fisikoa, gaur egun Realeko gazte mailetan lanean ari dena. Laurok osatzen dugu talde gidaria. Kolaboratzaile sarea ere ari gara osatzen. Konfirmatuta daude, Mikel Etxarri, Gaizka Garitano, Jose Luis Ribera, Amorrortu, Gorka Etxeberria, Aritz Olagoi kirol psikologoa... Baina kazetaritza lanak neuk egingo ditut.

Nolako harrera izan du zuen proiektuak futbolaren munduan?



Jaio: Zumaian, 1975eko urtarrilaren 24an.

Euskal filologia ikasi zenuen. Nola iritsi zinen kazetaritzara?

Segituan. Urtarrilaren 24an da kazetarien santua, oker ez banago... Betidanik gustatu zait kazetaritza. Nire asmoa zen filologia bi urtez ikastea eta ondoren kazetaritza ikasketak amaitzea, baina gustura nengoen filologian eta karrera han amaitu nuen. Baina beti kazetari izateko gogoarekin. Zarauzko Telebistan izan nuen lehen esperientzia kazetaritzan, eta ondoren Baleike, Hitza eta Berria ezagutu ditu. Orain kolaborazioak egiten ditut han eta hemen.

Kirolzale amorratua zara. Futbola eta eskubaloia praktikatu zenituen, eta bietan atezain. Jokalari frustratua al da atezaina?

Eskubaloian jokalaria ere probatu nuen. Nire kasuan ez da frustrazioa, nik betidanik nahi nuen atezain izan. Aita ere hala izan zen. Eta uste dut futbolerako ondo etorri zitzaidakidala eskubaloian egindako urteak.

Urte batzuk badaramatzazu Berria-n astelehenero “futbolsofatzen” futbolari

buruzko zutabeak idazten. Sofako filosofo asko al dago futbolean?

Ederra galdera... Futbolari ematen zaion garrantzia neurririk gabekoa da, ez dago dudarik. Jendeak iritzia ematea normala da, hor ez dut arazorik ikusten. Baina gaur egun futbolean zertaz hitz egin behar den kazetariak markatzen du, eta zenbait kazetariaren iritzien atzean ezjakintasun handia dago. Formazioa falta da. Nik arraunaz idazten dudanean sumatzen dut hori. Formaziorik gabe, gauza teknikoak ikusteko gaitasuna falta zaizu.

Eta zuk idatzitako iritziren batengatik norbait haserretu al zaizu?

Bai. Behin Aduriz haserretu zitzaidan. Athleticeko zegoenean, bolada batean askotan bota zuten kalera, asko protestatzen zuen. Zelaian harroxo samar zebilela idatzi nuen, kalte egiten ziola bere buruari. Berak ulertu zuen zuzenean harro deitzen ari nintzaiola, eta ez zen nire intentzioa. Baina gero konpondu genuen gaizki ulertua. Gero, Realeko eta Athleticen prentsaburuekin ere bai, baina bakoitzak bere lana egin behar du.

Egia esanda, oraindik ez gara hasi klubei aurkezten. Komentatu izan dugu entrenatzaileekin eta ezagutzen dugun jendearekin eta harrera ona izan du, hutsunea bete beharra ikusten du jendeak.

Finantziarioari dagokionez, nondik aterako duzue aurrera egiteko dirua?

Horrelako proiektu batek behar dituen dirulaguntzak eskatuko ditugu, nahiz eta jakin badakigun garai onenak ez direla. Bestela, espezializazioari zuzendutako ataleko edukiak ikusi ahal izateko hilean bost euroko harpidetza egin beharko da. Taktika, teknika, prestaketa fisikoa, psikologia eta elkarriketa dira entrenatzaileei zuzendutako atal horren osagaiak, eta astero-astero bat berritzen joango gara, hileroko eduki berriak egon daitezkeen. Produktu ona izango da, eta lan hori ba-

loratzeko uste dugu bidezkoa dela hileroko harpidetza eskatzea. Eta aurrerago publizitatea erakarri nahiko genuke, bisitek gora egin ahala.

Eta euskal futbol talde handien atekak ez al dituzue jo?

Gure artean hitz egin dugu, bai, Realaren Athleticen eta Osasunaren atekak jo beharko ditugula. Asmoa badaukagu, dirua, teoriarik, hor dago eta. Ea zer erantzun jasotzen dugun.

Edukiak nola landuko dituzue? Adibidez, taktikak eta esplikatzeak irudiak erabiliko al dituzue?

Euskaraz izango dira, baina irudi asko erabiliko ditugu, euskaraz ez dakienak ere ulertzeko aukera izan dezan. Elkarriketak bideotan emango ditugu, grafikoak, marrazkiak, argazkiak... oso bisuala izango da.

“Webgunera datorrenak futbolaren mamia ezagutzeko aukera izatea nahi dugu guk”

Edukiak euskal taldeen ingurukoak izango dira, edo ikusiko dugu, adibidez, Manchester Uniteden taktikari buruzko artikulurik?

Kanpokoak ere bai, alde horretatik ez dugu mugarik. Aktualitateak aginduko du. Afrika Kopa laster hasiko da eta horri buruz ere idatziko dugu.

Hasteko, zer eduki dituzue prestatuta?

Elkarriketa Mendilibarri egin nahi diogu, baina oraindik lotzen ari gara. Taktikaren atalean, Realaren jokoa aztertuko dugu. Prestaketa fisikoa, gaur egun ohikoak diren zenbait lesio aztertuko ditugu –iskiotionbialak...–, zergatik gertatzen diren eta nola prebenitu. Teknikan, taldean egin daitezkeen ariketa batzuk eta Bielsaren ariketa pare bat teknika lantzeko. Eta psikologian, Guardiola eta Mourinhoren lidertza ereduak.

Eta Iparraldeko futbola?

Iparraldekoa, Nafarroakoa... Euskal Herri osoa nahi dugu kontuan hartu, baina egia da Gipuzkoakoa ezagutzen dugula ondoen. Baina saiatuko gara sarea osatzen. Beheko mailetakoa futbolari kasu egin nahi diogu, eta ez eliteari bakarrik. ■

Besteekin komunikatzeko duen premia asetzeko idatzi du bere autobiografia Joxe Manuel Manzisidorrek. Joxe Manuelen bizitzara hurbiltzen lagundu digu bere lagun min Joseba Ossak. Liburuko hainbat pasarte ere aukeratu ditugu.

ESAN EZIN (OMEN) DIRENAK

TESTUA: JOSEBA OSSA

ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA, JOXE MANUEL MANZISIDOR ETA PANTZESKA XABIER COS (IZAN ZENTROA)

Ez ditu den-denak esan. Ez ditu gai guztiak jorratu liburuan. Ez ditu lagunekin izandako gorabehera guztiak kontatu. Ez ditu familiarekin izandako arazo guztiak jorratu. Ezta bere buruarekin izandakoak ere. Ez horixe. Eta eskubidea du, jakina. Eskubidea du nahi duena esateko, eta gorde nahi duena gordetzeko.

Askok esan du, ordea. Laburrean bada ere, gauza asko kontatu ditu. Ausart jokatu du. Ez ditu, ez, den-denak esan, baina ausart jokatu du. Uste nuena baino ausartago.

Gai zail edo intimo batzuk ere atera dira liburuan. Batzuetan zalantzan zegoen, aipatu ala ez aipatu. Eta aipatzekotan, nola jokatu. Gai zail horien artean hauek azpimarratuko nituzke: suizidioa, sexua, fedea/erlijioa, maitasuna eta norberaren alde ilunak.

Suizidioa

Aurkezpen egunean ez genuen ia aipatu ere egin. Joxe Manuelek bere burua uretara bota zuen duela urte pare bat, eta denok, ia denok dakigu hori. Gai ezaguna da Zumaian. Baina ez genuen aipatu. Beldurra ematen digu heriotzak. Beldurra ematen digu suizidioak. Batzuentzat gai tabua da. Agian gogorretan gogorrenetakoa delako.

Horren berri ondo dakigu etxean, neure familian. Gure amak ere bere burua itsasora bota zuen, eta itsasoak ez zigun bizirik bueltatu. Han joan zen, urak eramanda, Donostiako badiaraino. Itsasoak Donostian itzuli zigun arte. Zorionez. Bestela ez genukeen bakerik izango. Hildakoen gorpuak ikusi egin behar izaten ditugu hildakoarekin eta geure buruarekin bakeak egiteko. Edo gutxienez norbaitek ikusi dituela jakin behar izaten dugu, benetan joan direla jakiteko.

Joxe Manuelen kasua desberdina izan zen. Bere burua bota zuen, baina bizirik atera zuten. Bizirik atera zen. Eta agian bere burua itsasora bota behar izan zuen munduak jakin zezan zein gaizki zegoen. Agian ondo etorri zitzaion uretarako jauzia, bizitzan are salto handiagoa egiteko. Agian itsasoko uretara jauzi egin behar izan zuen, zulo hartatik bizitza berrirako jauzia egiteko.

Agian ezinbestekoa izan zen bere buruaz beste egiten saiatzea, besteok konturatu gintezen zenbaterainoko samina zuen, zenbaterainokoa zuen hutsunea. Etxea eta dirua bazuen, bai, norbaitek azpimarratu zuen bezala. Eta leporatu izan zioten, bai, ea nola litekeen bere burua botatzea hain ondo bizi omen zen une hartan. Pentsio ona, dirua nahikoa, etxebizitza eder bat ordainduta, eta lan egin beharrik ez... A ze pagotxa! Baina... hori nahikoa ote? Horrekin ematen al diogu zentzua bizitzari?

Horiek denak zituen Joxe Manuelek bere buruaz beste egiten saiatu zenean. Eta zer? “Jubilazio” on bat izan behar zuenak “dena” zeukan, baina “dena” falta zitzaion. Hutsune galanta zuen barruan. Bizipoza falta zuen. Agian bestelako begiak behar dira beste hori ikusteko... Hutsune handia behar baita norberaren bizitza kentzen saiatzeko. Egonezin galanta zeukan Joxe Manuelek une horretan. Eta agian jauzi egin behar izan zuen munduak jakin zezan zenbatekoa zen atsekabea.

Baina ez genuen ia-ia aipatu ere egin suizidioa aurkezpenean. Zergatik ote? Liburuaren “jaiotza” ospatzen ari ginelako, agian. Edo egun pozgarria izanik, kontu pozgarriak aipatu nahi izan genituelako? Agian. Baina berak ausart jokatu, eta liburuan adarretatik heldu zion gai zail honi ere.

Sexua eta afektua

Azkenean bai. Azkenean “lehen aldi hori” ere kontatzea erabaki zuen. Pixka bat kostata. Baina ausart. Eta garbi. Eta argi. Txapo, Joxe Manuel!

Aspalditik ari ginen aukera horretaz hitz egiten. Aspalditik aipatu izan dugu zein zaila den ezintasun larriak eta sexua uztartzea. Gai horri buruz naturaltasunez hitz egitea. Ez dakit zergatik, baina behin baino gehiagotan iruditu izan zait gizarteak ez diela pertsona ezinduei aitortzen behar sexualak asetzeko eskubidea, edo are gehiago, ez zaiela aitortzen horrelako premiarik izan ditzaketarik.

Bada film frantziar bat, *National 7* izenekoak, gai hori ondo jorratzen duena. Eta joan ginen film hori ikustera. Eta horrek erraztu egin zigun bidea. Niri behintzat bai.



Hala ere, ez zen erraza izan. Ezta lagunontzat ere. Bagenekien sexua diruaren trukean eskaintzen duten leku bate-ra joanez gero begirada guztiak laster batean geure gainean izango genituela. Bagenekien ezin izango genuela diskrezioz ibili. Ni, behintzat, urduri nengoen. Afaltzerakoan ohi baino ardo pixka bat gehiago edan behar izan genuen nerbioak barretzeko. Ia denetarik egin izan dugu gure bidaia eta irteeretan, baina halakorik artean ez, alajaina!

Lokalean sartu, eta argi izpi mugikorrak, arropa gutxiz jantzitako neska eder eta erakargarriak, bezero bila, gizonetako egarrituak asetzera. Gu, ahalik eta disimulu edo diskreziorik handienarekin, barraren ondora, leku lasai baten bila, geuk bakarrik osatzen genuen geure taldetxoaren babespean, urduritasunez jantzitako lotsa punttu batekin.

Edariak eskatu, eta lasaitzen saiatu ginen. Emakume asko zebilen inguruan. Baina ez ziren erraz hurbiltzen guregana. Budy ikustean, begirada saihestu, eta beste norabait jotzen zuten. Agian ez zuten trago txarrik pasa nahi. Agian ez zuten asmatuko nola jokatu halako kasu baten aurrean. Begirada asko galdu ziren. Baziren han bezero errazagoak. Ez zion inork begiradari eusten, eta etsitzen hasiak ginen batzuk. Helburua bete gabe itzuli beharko ote genuen, ba, etxera? Uste baino itxura txarragoa hartzen hasia zen gure esperientzia.

Harik eta emakumezko pottola samar bat gure lagunari begira geratu zitzaion arte. Hark bai. Begietara begiratu, eta begiradari eutsi egiten zion. Haren begietan begirada garbia, lasaia. Ez lotsarik, ez errukirik, ezta nazkarik ere. Begirada

lasaia, naturala. Gutako bat harengana hurbildu, eta argi esan zion zertara gindoazen, zein zen gure asmoa.

Berehala ulertu zuen, jakina. Eta berehala hurbildu zitzaion, naturaltasun osoz, erruki faltsurik gabeko begiekin, enpatia eta ulerkortasun handiz. Hark bazekien zer behar eta nahi zuen Budyk. Ulertzaile onari hitz gutxi.

Lanak egin ondoren gurekin jarraitu zuen puxka batean. Negozioaren arduradunak ikusi izan balu, seguruenik bronka handia jasoko zukeen, gurekin denbora galtzeagatik, horrela diru gutxi egingo zuelakoan. Kopa eta koparen artean esan zigun Brasildik zetorrela. Mutiko autista baten ama zela, bederatzi anai-arrebako familia txiro batekoa, eta ondo ulertzen zuela zer den horrela egotea. Familia aurrera ateratzeko asmoz etorri zela Europara.

Logelan dena hain ondo joan zenez, galdetu genion ea hurrengo batean lokal berera berriro etorritik gero bera han aurkituko genukeen. Eta zintzo erantzun zigun: berak sortetarian familia utzi, eta Europara 6 hilabeterako etorri zela.

Beraz, hurrengo batean berriro han elkartzea zaila izango zitzaigula. Lokal batetik bestera ere erraz mugitzen zituz-

“Berak liburuan dioen bezala, ez da heroia, baina hori ez da ezinbestekoa liburu bat idazteko”



▼ FINLANDIARA BIDAIA

Mugitzeko izan dituen zailtasunak ez dira oztopo izan asko bidaiatzeko. Esate baterako, Finlandiaraino joan zen Joseba Ossa lagunari bisita egitera.



▲ LIBURUAREN AURKEZPENEA

Senide, lagun, herritar eta aurpegi ezagunez bete zen Alondegia Joxe Manuelen liburuaren aurkezpenean. Jasone Osorok (liburua idazten lagundu dio), Joseba Ossak eta Jon Ander Garciak (diseinuaren arduraduna) egin zuten aurkezpena. Mariano Ferrer kazetari ohiak irakurri zuen Joxe Manuelek prestatutako testua (lagunak dira), eta ama Mirenek lore sorta jaso zuen, emozioari eutsi ezinik.



Garun paralisia daukat, baina ez nago gaixorik.

Garun paralisia burmuinetako lesioa da, eta normalean jaiotzaren inguruan gertatzen da. Badirudi nire kasuan oxigeno faltagatik gertatu zela, ur zikinak irensteagatik. Baina ni ez nago gaixo. Horrelakoa naiz, eta kitto! Muga fisiko asko ditut: ezin dut hitz egin, ezin dut oinez ibili, eskuekin oso baldarra naiz, ezin dut neure kasa jantzi, duxatu edo jan ere. Ezin ditut gauza horiek guztiak egin orain, 47 urterekin. Baina duela gutxi arte autonomo xamarra izan naiz. Ezin izan dut inoiz hitz egin, baina neure kasa bizi izan naiz 20 bat urtez.



Ama

Bizia zor diot. Hala da. Beragatik ez balitz, bizi gabe biziko nintzateke. Gogor egiten zidan. Oso gogor. Me-diku batek esan zion munduko maitasun guztia eman behar zidala, baina aldi berean gogor jokatu behar zuela nirekin. Eta hala egin zuen. Ez zidan inoiz hitz egitea exijitu. Ezta korrika egitea ere. Bazekien ez nintzela horretarako gai izango. Baina zenbait gauza egiten irakatsi zidan: bakarrik jaten, bakarrik janzten, komunera joaten eta abar.

...

7
MARIS
7 MARIS izotzuak

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

a3

Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

L I B R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALAI BERRI
supermerkatuak

Astelehenerdik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan
Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com

ALGORRI
TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157
anaseteakozapiak@telefonica.net

ILEA PAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroitza
- Iturgintza
- Energi berriztogarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA
Arkupe

ZUMAIA

Naizka 2 - tel. 943 561 601

OGI-EDER

ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Ribaitaria
Iñaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadiarrieta.com
www.basadiarrieta.com

Golez: 11-13 / Arrabadoz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita
Lamiakidatzen: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzuak

BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073

BATELA
ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4
Tel. 943 860 750



Budy jaio zen

Niretzat Donostiako Aspaceko tailerrera joatea izugarritzko jauzia izan zen. Han hasi nintzen neure burua onartzen. Ordura arte beste edozein mutilek egiten zuena egin nahi izaten nuen nik ere. Donostian garbi ikusi nuen hori ez zela posible, neure muga fisikoak nituela, eta muga horiekin bizi beharko nuela, gustatu ala ez, bizitza osoan. Niretzat aurrerapauso handia izan zen, izugarria. Ume izateari utzi, eta pertsona heldua bihurtu nintzen.



ONCE

Lanean hastea esperientzia bikaina izan zen. Hasieran jendea harrituta geratzen zen dirua bueltatzen ondo moldatzen nintzela ikustean. Batzuk nire amaren dendara joaten ziren eta honela esan: “aizu, ze listoa dan zure semea... kupoia erostean kanbioak ondo eman dizkit”. Eta amak erantzun: “Gure semea beti izan da listoa. Arazoa zeuena da, kosta egiten zaizuelako listoa denik sinestea”. Bestetik, onartu behar dut dirua irabazten hasi nintzenean gustua hartu niola, eta kateatuta bezala gelditu nintzela. Ordu asko ematen nituen kalean, kupoiak saltzen, eta jendeari lata ematen, erosteko. Eta ez soilik erosleei. Baita amari ere. Ama lanean jartzen nuen, 20:59ak arte, zozketa baino minutu bat lehenagora arte, saltzen eta sobratzen zirenak bueltatzen. Dirua droga bihur daiteke, beste edozein droga bezalaxe lotu eta adikzioa eragiten baitu. Eta gerora lotsatzeko moduko gauzak egin ditzakezu.



Nire borroka

Bizikleta eta biok ez ginen ondo konpontzen Zumaiako espaloietan eta koska ugariekin. Garai hartan ez zegoen orain besteko arrapalarik, eta zerbait egitea erabaki nuen. 14 urte nituela udaletxera joan, eta arrapalak eskatzen hasi nintzen. Tira, saiatzen nintzen konbentzitzen denontzako zela hobe, ez niretzako bakarrik. Baita umeen kotxeentzat ere. Gaur egun oso normala da gai horri buruzko kontzientzia izatea, eta eraikinak irisgarri egitea, baina garai hartan...



Ia-ia ikusezina

Supermanen modura jokatzeko aukerarik izango banu, super-botere bat eskatuko nuke: hitz egin ahal izatea. Niretzat komunikazioa oso garrantzitsua da. Hitz egin ezin izanak ate asko itxi dizkit. Eta ez soilik jendearekin komunikatzeko orduan. Baita besteek nitaz izan dezaketen iritzian ere. Borroka egiteko eta neure ideiak defendatzeko aukeren inguruan. Benetan naizen bezala agertzeko orduan. Jendeak nitaz daukan irudia aurreiritziz beteta dago. Eta gehienek uste dute hitz egin ezin duen pertsona batek bestelako ezintasunak dituela: sentitzeko, pentsatzeko, argudiatzeko... Eta hori gertatzen denean, ia-ia ikusezin bihurtzen zara.



Salbamenerako taula

Taula horrek erabat aldatu zuen nire bizitza. Lehen, komunikatzeko, keinuak, zaratak eta mugimenduak erabiltzen nituen. Taulari esker, letren bidez komunikatzen hasi nintzen. Horixe izan zen nire salbamenerako taula, zalantzarik gabe. Ia sinestezina da zenbaterainoko aldea dagoen bi komunikazio mota horien artean. Eta horrek ez du esan nahi nire lehen taularekin arazo guztiak amaitu zirenik, ez horixe. Aipatu izan dudana bezala, jendeak maiz ez dauka pazientziarik gelditu eta nik idazten dudana irakurtzeko. Baina bestetik, egia da gauza asko erraztu dizkidala, eta gainera, ni neu seguruago sentitzen naiz taularekin.



Aita izateko gogoa

30 urte inguru nituela burutik pasa zitzaidan ume bat adoptatzeko aukera. Bai, behin baino gehiagotan pasa zitzaidan burutik ideia hori. Umearekin jolastu, biberioia eman, bainatu, gauzak irakatsi, hezi... Nire ustez, aita ona izan nintekeen, baina aldi berean, banekien ni ez nintzela horretarako gai izango. Nire mugak nabarmenak dira, eta azkenean amak hazi beharko luke. Eta hori ez nuke inola ere onartuko. Horregatik kendu nuen burutik asmo hori. Baina jakina, oso pozik egingo nuke. Hainbeste dira munduan gehiegi pentsatu gabe ekartzen dituztenak umeak! Ezer sentitu gabe ekartzen dituzte! Eta beste muturrean, berriz, ni bezalako jendea. Aita izateko izugarritzko gogoa izan, baina ezin. Bizitzak edota egoerak jarritako mugek ukatu egin digute aukera hori.

...



“Berak ere hanka sartu duela
erakusten du, eta sartu bezala
ateratzen ere ikasi duela”

tela. Eta seguruenik hurrengoan zaila izango zela horrelakorik gertatzea. Aitortu zigun, baita ere, neska gehienei asko kostatzen zaiela horrelako egoeran daudenekin oheratzea, hitz egitea ia-ia ezinbestekoa zaien horrelakoetan. Ez gintuen engainatu. Bere lana ondo baino hobeto egin, eta hurrengo batean errepikatzea zaila zela abisatu. Zer gehiago espero genezakeen harengandik?

Emakume jator eta zintzo askoa ezagutu genuen gau hartan, arrastoa uzten duten horietakoa, puxka batean ahaztuko ez dugun emakumea. Eta ausart kontatzen du hori guztia Joxe Manuelek liburuan. Baita maitasun kontuak ere. Eta ez da gutxi...

Fedea

Hor ere neure zalantzak nituen. Kontatuko ote ditu Joxe Manuelek gure “ibilbide espiritualeko” kontu intimorik? Izan ere, sexu kontuak armairutik ateratzen ari garen bezala, batzuetan badut halako inpresioa fede kontuak armairuan sartzen ari garela... Eta aitortzen dut niri neuri ere erreparo pixka bat eman zidala ikusi nuenean kontu horiek aipatzen hasia zela. Ez baita erraza gure garaiotan hemen kontu horietaz hitz egitea.

Baina bai, eta adibide moduan bada ere, liburuan aitortzen duen bezala, Joxe Manuelen bizitzako unerik ederrene-

tako bat Parisen bizi izan zuen, testuinguru erlijioso batean. Eta nik ere bai. 80ko hamarkadako urte haietako bat zen, urtezahar eguna, eta milaka gazte bildu ginen Parisko katedralik ederrenetako batean, Notre Dame gotiko liluragarrian. Egun batzuez aulkiak kendu, protokoloak albo batera utzi, zurruntasuna eta estetika iluna kendu, tenplua bizitzaz eta kolorez bete, eta milaka gazte elkartu ginen, urte berriari ongi etorri berezia egiteko. Lehenik isiltasuna egin, testu laburrak irakurri, eta meditazio giroa sortzen laguntzen duten abestiak kantatu genituen tarteka. Ikono bat kandela artean, giro berezi horri arreta puntu bat jarritz, eta Europa eta mundu osoko gazte asko bildu ginen han. Gauerdia hurbildu ahala, emozioak pilatzen hasi ziren. Egunetan aritu ginen elkarrekin, taldeetan lanean, gogoeta egiten. Munduaren eta gazteon egoeraz, gizarteko injustiziez eta gazte askoren noraeza existentzialaz. Bizitzari zentzua emateko beharraz, guztion arteko berdintasunaren garrantziaz, baztertuen egoeraz, elizaz eta fedez, fede aniztasunaz eta fede gabeziak, elkartasun eta maitasun beharraz... Hitz, kantu eta isiltasun asko partekatu genituen jadanik hango eta hemengo gazteekin, eta une berezi bat hurbiltzen ari zen. Aldi berean konbentzio hutsa eta une magikoa den une bat, urte zahar eta berriaren arteko muga egiten duen une hori... Eta halaxe gertatu zen. Emozio eta poz leherketa moduko bat. Kanpaiak joka hasi

zirenean, isiltasun sakon hura hautsi, kantuari ekin, eta elkar zoriontzen eta besarkatzen hasi ginen. Une gogoangarria gertatu zen, bai, Joxe Manuelentzat eta beste askorentzat.

Eta ez une hura bakarrik, jakina. Une horrek nola edo hala laburbiltzen zuen egunetan egindako lanaren emaitza. Joxe Manueli pazientzia handiz entzun izan ziotenen besarkada ez zen ohikoa, askoz sakonagoa eta sentituagoa baizik. Konfiantza da Taizé-ko topaketetan azpimarratzen den baliorik handienetako bat. Konfiantzaren beharra aitortu, eta konfiantzaz jokatzeko erakusten dute monje berezi horiek. Eta oker ez banago, Joxe Manueli ere barru-barruraino iritsi zitzaion konfiantzaz jokatzeko kontu hori, inguruan nahikoa faktore bazituelako mesfidantzaz jokatzeko.

Bestetik, liburuan oso aitorten interesgarria egiten duela iruditzen zait. “Egia esan, ez dakit seguru zergatik joaten nintzen Taizé-ko topaketa horietara: Jainkoan sinesten nuelako, bi-lutzen ari nintzelako, edota pertsona haiengan sinesten nuelako, hau da, ni ezagutu orduko osorik onartzen nindutelako, nintzen bezalakoa izanik onartzen nindutelako”.

Izan ere, nire ustez hiruretatik zerbait zegoen, baina seguru-erik azken arrazoi hori zen pisutsuena. Finean, guztioi gertatzen zaigu neurri batean edo bestean horrelakorik, baina maila guztietan: izan erlijioan, politikan, ideologian... ideiak edo pentsamenduak berak baino indar handiagoa izaten du maiz pertsonetikiko harremanak. Baina tira, hori beste upeleko sagardoa da, eta hor utziko dut, apunte modura.

Lotsagabe galanta haiz, motel!

Behin baino gehiagotan esan izan nion. Konfiantza guztiz, adiskidetasunez. Bidaia edo afarietan ere bai, baina batez ere lanean ari zelarik, kalean ONCEko kupoiak saltzen. Kabinan goxo egon beharrean, hor ibili behar izaten zuen, kalean. Batzuetan atsegin, bestetan plasta ederra ematen aurrean harrapatzen zuen edonori. Eta ez nuen batere ondo eramaten. “Fintasun pixka bat, mesedez” esaten nion horrela hasten zenean. Horretarako ere bagenuen konfiantza, bai horixe. Eta pentsatzen nuen bezala esaten nizkion. Ez nuen batere ondo eramaten. Eta zenbait lagun galtzeko arrazoia ere izan zela uste nuen.

Eta norbaitek esan izan du nola litekeen liburu bat idaztea, eredugarria balitz bezala, hain lotsagabe izanik... Eta nik esango nuke ez dela ez santu, ez heroi ere. Berak liburuan dioen bezala, ez da heroia, baina hori ez da ezinbestekoa liburu bat idazteko.

Agian banitate pixka bat behar da, hori bai, Jasone Osorok aurkezpenean esan zuen bezala, banitate pixka bat norberaren bizitzari buruzko liburu bat idazteko. Baina ez da perfektu izan beharrik ere. Kontua da norberaren hanka-sartzeak onartzen jakitea, eta halaxe egin du Budyk epilogoan. Hainbeste urtez kupoiak saltzean plasta eman dielako gogaitu direnei barkamena eskatu die epilogo bat idazterakoan. Eta horrek, liburuan zehar egindako beste zenbait aitorten bezala, berak ere hanka sartu duela erakusten du, eta sartu bezala ateratzen ere ikasi duela, eta kontu horietaz guztiez ere hitz egiteko gai izan dela.

Ausart jokatu du liburuan, bizitzan bezalaxe, eta hori zoriontzekoa iruditzen zait. Zorionak, beraz, Joxe Manuel.

Maitasun kontuak

Tolosako neska bat zen. Frantzian ezagutu nuen, Taizén, eta izugarri maitemindu nintzen. Denetan laguntzen zidan: janzen, jaten... Denataz hitz egiten genuen, eta Taizétik itzuli ondoren elkartzen jarraitu genuen. Ni Tolosara joaten nintzen, eta haren familiarekin batera bazkaltzen genuen. Munduko gizonik zorionsuena nintzen. Ez nuen beste ezer behar. Zeharo maiteminduta nengoen. Egutero deitzen nion telefonoz. 18 urte inguru izango nituen, eta bizitzako garairik zorionsuenetako bat bizitzen ari nintzen. Gero, ordea, bera Madrilerara joan zen, ikastera, eta kontaktua galdu egin zen. Oso une txarrak bizi izan nituen orduan.



Zumaiako azken urteak eta suizidatzeko saioa

Zumaiako azken urteak oso gogorrak izan ziren. Pixkanaka-pixkanaka nire egoera fisikoak okerrera egiten zuen, eta horrekin batera, neure animoak ere behera egiten zuen. Gehiegizkoa zen niretzat. Ez neukan indarrik egoera horri aurre egiteko. Neure burua itsasora bota aurretik beste saio batzuk ere izan nituen. Ezin nuen egoera hura jasan, eta halako batean, 2009ko ekainaren 20an neure burua bota nuen Zumaiako erriora. Tontakeria galanta izan zen. Onartzen dut. Baina halaxe gertatu zen, eta kito. Neure etxetik joan behar izatea, bakardadea, gero eta mendekotasun handiagoa nuela ikustea, gero eta laguntza gehiago behar izatea denetarako, jateko, janzteko, komunera joateko... Horrek guztiak izugarritzko eragina izan zuen nigan, neure egoera animikoan. Ezin nuen gehiago, eta neure burua bota nuen. Gogoan dut erortzen ari nintzen une berean damutu nintzela. Ergel hutsa izan nintzen. Onartzen dut.



Bizitza berria IZA zentroan

Ez naiz damutzen IZAn geratu izanaz. Hasieran aldapa gora egin zitzaidan, baina orain ez. Bertako psikologoak esaten zidan bezala neure bizitza egin dezaket hemen, Zumaiaren bezalaxe. Agian Zumaiaren baino hobeto, gainera. Gaur egun oso oso pozik nago hemen. Denerako laguntza daukat: dutxa hartzeko, janzteko, jateko... Zumaiara doan tren bertan daukat, etxe ondoan. Gainera, erabateko askatasuna daukat lagunekin joateko, bazkaltzera, afaltzera edota kanpora, asteburu pasa. Zer gehiago eska dezaket?

BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's

Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN

SAGARDO EKIDOLKIOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

SESMA

ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesesma.com
josebasesma14@gmail.com

ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA

OPIL OKINDEGIA
SANTXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskeatu aurrekontua
konpromisorik gabe.

DOAN

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda

Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapata, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesatzeak, Esnearen, Arduratsuen, Buroi minen, Zirkulazio arazoentzako kontrakoak), Akupuntura, hornatzeekin eta hornatzak gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

Era guztietako instalazioak etxebizitzara, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona

burdindegia

Mondano marnela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa

kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



- Eskatuko nuke ni ez hartzea ume txiki bat bezala.
 - Ez dezala inork pentsa atzeratua naizenik eta ez dudarik ezer ulertzen.
 - Lagunekin jatetxe batera joatean zerbitzariak izan dezala niri ere galdetzeko ausardia, eta ez lagunei “Zer nahi du honek?”.
 - Jendeak pazientzia har dezala nirekin hitz egiteko, eta nik taulan idazten dudana irakurtzeko.
 - Oinezkoentzako bideetan ranpak ikusi nahiko nituzke, denontzat irisgarriak izan daitezen. Baita museo, kiroldegi eta zinemak ere, denontzat irisgarri.
 - Gizarteak kontuan har ditzan ezintasunak dituzten pertsonak, eta ez dezan errazegi esan zer den normala eta zer ez.
 - Eskatzen hasita, eskatuko nuke liburu hau probetxuzkoa izatea, besteak beste jakinarazteko ezinduak gauza asko egin ditzakegula.
- Txikitari nire anai-arrebekin eta auzoko lagunekin jolas-tu nuen.
- Gaztetan ez nintzen geldirik egon. Bidaia-tu, parranda-k egin...
- Heldutan lan egiten igaro ditut 23 urte, eta neure etxearen jabe egin naiz. Eta autonomia maila txukun batean bizi izan nintzen han, neure kasa.
- Eta horrekin ez dut esan nahi hori dena egin behar denik nahitaez. Nire kasuan hala gertatu zen, auskalo zergatik. Agian familiaren laguntzagatik edo izan ditudan lagunengatik. Bakoitzak geure bizitza daukagu, muga gehiago edo gutxiagorekin. Finean denok ditugu geure mugak, geure ezintasunak. Denok. Oso garrantzitsua da norberak ez jartzea muga gehiago norbere buruari. Nahikoa dugu berez jaiotzatik ditugun mugekin. Eta are garrantzitsuagoa da kanpotik ikusten gaituztenean ez ikustea muga horien bidez, ez mugatzea muga horietara.

Iritsiko al da egun hori!!

Zumaian badut Garun Paralisia daukan lagun bat, Telmo izenekoa. Ezin du oinez ibili, eta eskuak mugitzeko zaitasun handiak dauzka, baina unibertsitateko bigarren karrera ikasten ari da. Lehenik ingelesezko magisteritza egin zuen, eta orain pedagogia ikasten ari da. Txapo, Telmo!

Egia da bizitza gogorra izan dudala, eta arazo ugari. Hala ere, pozik nago orain arte izan dudanarekin eta ilusioz begiratzen diot etorkizunari. Agian datorren urtean eskolako graduatua ateratzen saiatuko naiz. Aspalditik daramat arantza hori barruan sartuta, eta noizbait aterra nahiko nuke. Ikastea gustuko dut, baina beldurra diet matematikei, zatiki, erro karratu eta antzeko kontzeptuei. Gainera, gero ez dute ezertarako balio, eta ezin dituzu ordenagailuan egin. Formula eta kontu horiek eskuz egin behar izaten dira, eta ni ez naiz ondo konpontzen nire esku hauekin... Tira, ikusiko dugu zer gertatzen den. Nire etorkizunak “bihar” izena du.

Liburu hau neuretzat oso baliagarria izan zait. Balio izan dit konturatzeko zenbat gauza egin ditudan, noraino iritsi naizen. Zergatik idatzi dudan? Idazteko beharra sentitzen nuelako, nire bizitza kontatzeko, eta ez dakidalako ezer egin gabe egoten. Asko gustatzen zaizkit erronkak. Asko maite dut gauzak egitea, ez geldirik egotea. Ez dut telebistaren aurrean ezer egin gabe egon nahi. Nik ez dut horretarako balio. Xabier Letek kanta batean dioen bezala, “gizon okupatua gauza ederra da”. Egia galanta, bai horixe!

Batzuen ustez agian zoraturata nago, pitzaturata. Beste batzuentzat agian heroia naiz. Ez da agian ondo egongo nik neuk esatea, baina nire ustez beharbada eredu gisa balio izan diot norbaiti. Eta Zumaian, behintzat, hainbat eskema hautsi ditut. Jende askorentzat zailak diren gauzak egin ditut. Donostiako Udalean, adibidez, laguntzarik gabe erroldatu nintzen. Eta bakarrik joan nintzen Nortasun Agiria ateratzera. Ni, neure muga hauekin, hitz egiteko gaitasunik gabe.

Beti izan dut aurrera jotzeko joera. Eta ez naiz damutzen. Alderantziz baizik. Baina ez naiz heroia ere.

Besterik gabe, Joxe Manuel Mancisidor Olaizola naiz, Budy, ez gehiago, ez gutxiago. ■



3812200

MOTXO

ERANTZUNEN GARAIA

Ikertzaileen txostenak gogor kritikatu ditu 'Motxo' erreskatatzeko egindako saioak

Motxo arrantzontziaren istripuak galdera asko utzi zituen erantzun gabe, zalantza eta susmo gehiegi. Hamalau hilabete behar izan dira Espainiako Sustapen Ministerioak burututako ikerketaren emaitza ezagutzeko. Bi dira txostenaren ondorio nagusiak: bata, Motxo ez zen arrantzan ari istripua izan zuenean; bestea, ontzia erreskatatzeko lanak desastre hutsa izan ziren.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Motxo arrantzan ari al zen Zumaia eta Deba arteko biotopo babes-tuan istripua izan zuenean? Ez, bidean zihoan —beti txostenaren arabera—. Zergatik ez zituzten aprobetxatu istripu ondorengo lehen orduak arrantzontzia itsasoratze edo, gutxienez, soka batekin atoiotz batera lotzeko? Erabaki okerrak hartu zirelako. Aseguru etxearen oniritziaren zain egon al ziren erreskateari ekiteko? Aseguru etxeak enpresa bat kontratatu zuen arte ez zen ontzia erreskatatzeko operazioa martxan jarri. Zergatik ez zuten aurrena likido guztia (20 tona) atera erreskatea errazteko? Kritika hori egiten du txostenak. Zergatik ez zuten adostutako ordua

errespetatu (itsasgora) atoiotzitik tiraka hastera? Tiraka hasi zirenean lehorretik maniobra gidatzeko inor ez zegoela salatzen du txostenak. Nork hartu zuen erabakia? Ez da argitzen. Nork hartuko du erabaki okerraren erantzukizuna? Hain zuzen ere, erantzukizunak onartzeko gaitasun eza salatzen du. Neurri-rik hartuko al da berriro gerta ez dadin? Planak ondo zehazteko, egingarriak direla ziurtatzeko eta espezialisten esku uzteko proposatzen du txostenak, eta zeharka kritikatzeko du aseguru etxeak kontratatutako enpresa (Facal) ez dagoela lan horietarako prestatuta.

Hamalau hilabete pasa behar izan dira 2010eko azaroko *Baleike* aldizkarian egin genituen galderei erantzuna aurkitzeko. Istripuaren gaineko ikerketaren emaitza argitaratu berri du Espainiako Sustapen Ministerio Itsas Istripuen Ikerketa





◀▲ SAIO USTELAK

Erreskateaz arduratu zen enpresak ez zituen nahikoa baliabide lanak aurrera eramateko, eta gainera ez zen enpresa espezializatua. Esate baterako, hainbat boluntarioren laguntza behar izan zuten 'Motxo' eta atoiontzia sokaz lotzeko.'

“Baliteke patroiak orientazioa galtzea eta benetako posizioaz ez jabetzea”

Batzorde Iraunkorrak, S-44/2011 txosten teknikoan. Galdera guztiak ez ditu erantzuten, baina ondorio garrantzitsuak ateratzen ditu: Motxo ez zen arrantzan ari; arrantzontziaren zaintza oker baten ondorioz izan zuten istripua. Ontzia erreskatzeko operazioak gabezia handiak izan zituen. Erabaki okerrak hartu ziren, ardurak ez ziren ondo zehaztu, koordinazio eta informazio gabeziak egon ziren, profesionaltasun falta...

Jarraian dituzue txostenean jasotako gertaeren kronologia, eta batzordeak egindako analisiak eta ateratako ondorioak (*kurtsiban*):

2010-11-03

Motxo arrantzontzia 18:00etan itsasoratu zen Bermeoko portutik, bederatzi lagunez osatutako eskifaiarekin. Patroia eta bere bigarrena zeuden zubian, zaintza lanetan. Inguratze arrantzarako bi sare zeramatzen: handiena, 470 metro luze eta 120 metroko hondokoa; txikiena (385x75 metro) makinillan muntatuta zegoen.

2010-11-04

Bermeo eta Ondarroa artean ibili ziren arrain bila, kostaldetik pare bat miliako distantziara, 20 eta 50 metro arteko sakonera zegoen lekuetan, eta 7-8 korapiloko abiaduran. Goizeko 03:30ean patroia lagun zaila lotara joan zen eta patroia bakarrik gelditu zen zubian zaintza lanetan. Une horretan Ondarroa parean zeuden, 6-7 korapiloko abiaduran eta 119° norabidean, ikerketarako jasotako testigantzen arabera.

Itsasontziaren ibilbidea bat dator bigarren patroia lotara joan zenean zeramatzen norabidearekin (119°) eta abiadurarekin (6-7 korapilo).

Istripua

Goizeko 04:52ean, identifikaturik gabeko itsasontzi batek Sos-Deiak larrialdi zentzura deitu zuen *Motxo* arrantzontziarentzat laguntza eske, haitzen kontra zihoalako.

Bi minutu geroago, 04:54an, *Lau Anaia* arrantzontziak Sasemarrera (itsas salbamendua) deitu zuen VHFko 16. kanaletik, ohartarazteko *Motxo* sareak botata zegoela eta ha-

▼ 'MOTXO'-REN IBILBIDEA

Txostenak jaso duenez, Bermeo eta Ondarra artean arrain bila ibili ondoren, goizeko 3:30ean 119°ko norabidea hartu zuen 'Motxo'-k, kostaldeari paraleloan. Antza denez, beranduegi ohartu zen patroia kostaldera gehiegi hurbildu zirela.



rralderantz zihola, 43° 17' I, 002° 17' M posizioan. Handik minutu gutxira *Motxo*-k hondoa jo zuen Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalgunean [Baratzazarraurrean], 43°17,76' I, 002° 17,40' M posizioan. Haitza jota, gilaren gainean gelditu zen ontzia, branka labarrei begira eta istribor aldera okertuta; argiak, artean, piztuta.

Patroiak adierazi zuen ez zela ohartu arrantzontziaren benetako posizioaz, ez zuela uste kostaldetik hain gertu zendenik, eta, konturatu zenean, ontzia ababor aldera biratzen saiatu zela. Baina olatuek kostalderantz eraman zuten hondoa jo arte.


Istripua gertatu zen unean, arrantzontziak makinillan muntatuta zenezkan sareak ixteko erabiltzen diren sokak, eta sei edo zazpi korapiloko abiaduran ari zen nabigatzen. Baldintza horietan ezinezkoa da arrantzaren jardutea. Ontziak ababorrera egin zuen hondoa jo baino lehen, eta olatuen kolpeen menpe gelditu zen. Hain zuzen ere, sareak ababorrean zenden jasota, ontziaren erdialdetik popaldera, eta ziurrenik olatuek bota zituzten itsasora. Horrek azalduko luke Lau Anaia arrantzontziak bere abisuan esandakoa, alegia, *Motxo*-k sareak uretan zenezkala.

Gertatutakoa aztertuta, ondoriozta daiteke arrantzontziaren zaintza ez zela eraginkorra izan. Istripua gertatu aurreko bi orduetan ontziak norabide berbera mantendu zuen, kostaldeari paraleloan, baina azkenean pixkanaka lehorrerantz gerturatuz joan zen, eta inork ez zuen norabidea zuzendu.

Istripua gertatu zen unean patroia bakarrik zegoen zubian eta 11 ordu zeramatzan zaintza lanetan; litekeena da nekatuta, aspertuta edo distrahituta egotea.

Istripua gertatu zen kosta tartearen bereziki iluna da itsasotik begiratuta, eta labarrez dago osaturik. Goizalderako behelainoa zegoen iragarritu. Nabigatzeko tresna egokiak izan arren, ez ziren behar bezala erabili. Bera, baliteke patroiak orientazioa galtzea eta benetako posizioaz ez jabetzea. Horrez gain, obiko arrantzaren lekuan ibiltzeak gehiegi konfiantza eragin eta beharrezkoak diren zaintza eta segurtasun neurriak ez hartzea eraman dezake.

Ez da sinesgarria azaroaren 9an patroiak eman zuen azalpena: olatu handi batek sareak itsasora bota, helizean kateatu, motorra geldiarazi eta



Ondorioak eta aholkuak

Gertaeren analisiarekin batera, batzordeak ondorioak eta aholkuak argitaratu ditu.

Istripuaz

- Arrantzontziaren zaintza okerra, desorientazioa eta giza akatsak izan ziren, ziurrenik, istripuaren arrazoiak.
- Ez da sinesgarria olatu handi batek sareak bota eta helizean kateatu ondoren motorra gelditu zela.
- Istripuaren berri emateko, ez ziren jarraitu zehaztuta dauden irati bidezko araubideak.

Ontzia erreskatatzeko saioez

- Erreskate saioetan agerian gelditu ziren gabeziak, antolaketa eta formakuntza, eta erabakiak hartzeko zein ardurak onartzeko garaian.
- Ez zen zehaztu zer erakundek zuen erreskate operazioa ikuskatzeko ardura.
- *Motxo* irauli egin zen gaizki definitu, planifikatu eta burututako plan baten ondorioz.

Aholkuak

Ondorioak kontuan hartuta, batzordeak zera aholkatzen dio Merkataritza-Ontzien Zuzendaritza Nagusiari: aurrerantzean erreskate operazioak enpresa espezializatuak egin ditzatela, ziurta dadila lanak ondo egiteko behar diren baliabideak dituztela, eta beti idatziz aurkeztu eta adostu diren plan egingarrien arabera.




GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinstitute@telefonica.net

Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibai gain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748
rjzcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpatratuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65

JUARISTI
jaketxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

Kaia

Pintxoak eta
otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Pakila Etxezarreta, 15
943 117 427

TABERNA



Kaittermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

KANTAUARI
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840



ontzia gobernatu ezinik gelditu zirela. Helizeko paletan ageri diren kalteak aztertuta, ondoriozta daiteke helizea martxan zegoela, pala guztietan kalteak oso antzekoak baitira —baitza jotzean biraka zegoen seinale—. Sareen arrastorik ere ez zen aurkitu helizean. Ziurrenik, motorra gelditu zen helizeak hondoa jo zuelako eta, sakonera txikia zegoenez, ontziak ezin zuelako nabikoa ur hartu motorra hozteko.

Beraz, ikerketa batzordearen iritziz, istripuaren arrazoiak, ziu- rrenik, giza akatsekin dute zerikusia: ontziaren zaintza akatsak, benetako posizioaren uste okerra, gehiegizko konfiantza, nekea...

Eskifaiaaren erreskatea

05:04an, salbamendurako Helimer 212 helikopteroa jarri zuen lanean Sasemarrek.

05:26an, Jaurilaritzak larrialdietarako teknikari bat jarri zuen lanean, Sos Deiak-ekoa.

05:32an, *Motxo* argirik gabe gelditu zen. Sorospen ontziko argia erabili behar izan zuten handik aurrera.

05:46an iritsi ziren istripuaren lekura Sasemarrek bidali- tako Donostia II eta Hondarribia II salbamendu ontziak, eta informazioa biltzea izan zen lehen lana.

06:12an, *Motxo*-ko patroiak eskatu zion Lau *Anaiak* arrantzotziko patroiarri eskifaia erreskatatzeko abisua eman ziezaiola Sasemari.

06:35ean, Maria de Maeztu salbamendu ontzia mugiarazi zuen Sasemarrek.

06:40an, istripuaren lekuan iritsi zen Helimer 212 helikopteroa, eta eskifaia erreskatatzeari ekin zioten. Lau arrantzale Zumaian utzi zituzten, 7:28an, eta beste bostak Hondarribiko aireporturaino eraman zituzten, 7:47an.

08:07an, *Motxo*-ko patroiak jakinarazi zion Sasemari ontzian 15 tona gasolio eta 500 litro olio zeramatzatela.

Ontzia flotarazteko saioak

Goizeko 09:00etan bilera deitu zuten Pasaia Itsas Kapitaintzan, egoera aztertu eta ontzia harraldetik nola itsasoratu aztertzeke. Bileran parte hartu zuten Kapitaintzako ordezkariak, ontziaren jabeak, ontziaren aseguru etxeko ordezkariak eta Facal atoi-ontzi enpresako ordezkariak, baina ez zen egon Jaurilaritzako larrialdietarako teknikaria. Behin egoera aztertuta, ondorioztatu zuten itsasotik ezinezkoa zela *Motxo* atoi-ontzira soka batekin lotzea, sakonera txikiko urak direlako; helikoptero baten laguntzarekin egitea erabaki zuten.

“Koordinazio falta nabarmena gertatu zen ontziaren erreskatean eta erabaki okerra hartu zuten”

riak eta Facal atoi-ontzi enpresako ordezkariak, baina ez zen egon Jaurilaritzako larrialdietarako teknikaria. Behin egoera aztertuta, ondorioztatu zuten itsasotik ezinezkoa zela *Motxo* atoi-ontzira soka batekin lotzea, sakonera txikiko urak direlako; helikoptero baten laguntzarekin egitea erabaki zuten.

Plana ez zen idatziz aurkeztu eta ez zuen idatzizko oniritzirik jaso, dena ahoz egin zen, denborarik ez zegoela argudiatuta.

10:10ean Pasaia Itsas kapitainak jakinarazi zion Sasemari erreskate lanak Facal atoi-ontzi enpresak egingo zituela, aseguru etxeak kontratatuta.

13:35ean Facal 19 atoi-ontzia istripuaren lekuan zegoen, aginduen zain. Atoi-ontzian bertan zegoen enpresak operazioa gidatzeko jarritako arduraduna. Helimer 213 helikopteroarekin harremanetan zegoen ordurako.

Sasemarren Maria de Maeztu salbamendu ontzia inguruan zen 10:53tik, aginduen zain, aseguru etxeak kontratatutako atoi-ontzia iritsi baino bi ordu eta erdi lehenago.

13:45ean Helimer 213 helikopteroko gidariak jakinarazi zuen 200 kilo baino gehiago ezin zituela altxa. *Motxo* erreskatatzeko erabili nahi zen 500 metroko sokak lau tonako pisua zuen. Maniobra ezinezkoa zen, beraz. Orduan pentsatu zuten Facal enpresak jarritako operazio arduraduna *Motxo*-rainera eramatea helikopterok, baina baztertu egin zuten arriskutsua zelako.

Koordinazio falta nabarmena gertatu zen erreskatean parte hartu zutenen artean, informazio eta komunikazio faltagatik, eta erabaki okerra hartu zuten:



Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lentzeria
erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna
oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...
marina
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika
etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

✓ Eguneko menua.
✓ Asteburuetan txotx,
sagardotegiko giroan.



muniosoro
Taberna - Jatebxa
Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891

Nikol Enea



TABERNA
Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna
ogitartekoak
pintxoak
Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar induristegunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com
638 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.
Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...
Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

- Garraiatu beharreko sokak 4.000 kilo pisatzen zituen eta helikopteroak 200 kilo baino ezin zituen altza.
- Lehorretik bazegoen arrantzontziraino iristeko modua. Goizeko 06:25ean inguruan zeuden Jaurlaritzako larrialdietarako teknikaria eta su-hiltzaileak. Gainera, azkenean lehorretik atera zen arrantzontzia garabi handi batekin.

16:10ean erreskate lanak bertan behera lagatzea erabaki zuen Sasemarre, eguraldi txarra zegoela argudiatuta. Maria de Maeztu salbamendu ontzia han gelditu zen.

Lehen eguna alferrik galdu zen, koordinazio eta antolaketa faltagatik. Itsasgorarekin, Motxo 75 metro mugitu zen lehorrerantz, eta erreskatea zaildu egin zen.

2010-10-05

08:27an, *Hondarribia II* salbamendu ontzia eta uretako moto bat Zumaia-arrantzabiato ziren, erreskate lanetan laguntzera.

08:30ean, Bilboko salbamendu zentroetik goizeko ekintza planen berri eman zuten:

- *Salvamar Orion* ontziak kutsaduraren kontrako hesi bat jasoko zuen Zumaian Maria de Maeztu salbamendu ontzira eramateko.
- *Facal 18* atoi-ontzitik abiatutako ontzi pneumatiko batek harraldera gerturatu eta jaurtigailu batekin soka helaraziko zitzaion lurtean zegoen lan taldeari, ondoren Motxora igo eta lotzeko.
- Itsasgoran [15:30ean] saiatuko ziren arrantzotzia flotarazten, *Facal 18* atoi-ontziarekin.

08:50ean, *Salvamar Orion* Zumaia-arrantzabiato zuten kutsaduraren kontrako hesiarekin eta Sasemarreko teknikari batekin.

09:15ean hasi ziren *Motxo* sokaz lotzeko lanak. Soka eskuz eraman zen atoi-ontzirik arrantzontziraino, Sasemarreko langile eta inguruko boluntarioen laguntzarekin.

Erreskaterako kontratatutako enpresak ez zuen nabikoa langile soka atoi-ontzitik arrantzontziraino eramateko. Horrela, atoi-ontziko patroiak Motxo-ko patroia-erakatu zion eskifaia-erakatu. Ho-

riek ez zuten lanerako, eta Sasemarreko langileak eta inguruko beste hainbat boluntario behar izan ziren operazioa burutzeko.

11:00etan lortu zen *Motxo* sokarekin lotzea. 11:50ean prest zegoen atoi-eramateko.

Atoian errazago eramateko, arrantzontziaren pisua arintzea erabaki zen. Sasemarreko langileek 560 litro erregai atera zituzten (15.000 litro zituen), baina olio (500 litro) eta edateko ura (7,8 tona) bertan utzi zituzten. Guztira, 20 tona likido utzi ziren deposituetan, arrantzontziak zuen pisu osoaren %15.

Motxo iraultzea

14:15ean, Sasemar harremanetan jarri zen *Facal 18* atoi-ontziarekin, egoeraren berri jasotzeko. Atoi-ontziko patroiak jakinarazi zien arrantzontzitik tiraka hasi zirenean ababor aldera irauli eta soka eten egin zela [Tiratzeko lanak itsasgoran -15:30ean- egingo zituztela adostu arren, ordu eta erdi lehenago ekin zioten. Erabakia nork hartu zuen eta zergatik ez da aipatzen txostenean].

Behin soka branka lotuta, atoi-ontzia trabeska eta ababor aldera hasi zen tiraka. Brankatik tiratzea erabaki zen, txopan pisu gehiago zuelako. Ideia zen aurrena 180 gradu biratzea eta, behin branka itsasora begira jarrita, itsasorantz ateratzea.

Tiraka hasi zirenean, hasieran Motxo biratzen hasi zen ababor aldera, baina arrantzontziaren gila brankadekin lerrokatu zenean kateatu egin zen. Tiraka jarraitu zuten, ontzia irauli egin zen, ababor aldera.

Tiraka hasi ziren unean lehorrean ez zegoen inor operazioa gidatzen. Arduradun bakarra atoi-ontziko patroia zen, eta hark ere ezin zuen ikusi gertatzen ari zena. Horrela, irauli ondoren ere, metro batzuk arrastaka eraman zuten Motxo, soka eten egin zen arte.

Iraili eta berehala erregai orbanak ikusi ahal izan zituzten helikopterorik, handiena 300 metro luze eta ehun metro zabal. Kutsaduraren kontrako hesiak jarri zirela dio txostenak, baina ilundu zuzenean jaso egin zirela. Hala ere, kutsaduraren kontrako neurriak hartu zirela dio, gehiago zehaztu gabe.

Hurrengo egunetan *Motxo* lehorrerantz gerturatzen joan zen pixkanaka, itsasoak bultzatuta. Istripua gertatu zen puntutik 300 metro ekarri zuen itsasoak lehorrerantz. Arrastoa begi bistakoa da, haitz geruzak hautsi baitzituen bidean.

Harraldean hilabete baino gehiago egin ondoren, abenduaren 9an lehorreratu zuten garabi batekin [itsas istripuak ikertzen dituen batzordea izanik, txostenean ez da aztertzen garabiaren aukera egokia izan ote zen edo ez]. ■

“Deposituetan 20 tona likido utzi zituzten, ontziaren pisu osoaren %15”





OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza Altzariak

Julio Beobide ibiltokia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazaleuskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE

jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA

garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kodiilloa)
Saltxitak, oilaskoak...
Garagardak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

TXORTENA JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Urola 2000, s.l.

Aroztegia

*Erakuntzen akabera eta dekorazioak
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Aste, zokalo, tarima eta pertsiak
*Amaieru enpatratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Gosariak-Pintxoak-Kazueltak-Eguneko menua-Asteburuko
menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errazioak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA


ZUMAIAKO TXAKURKROSA

GIPUZKOAKO LIGAREN SORTZAILE

Zumaiako lehen txakurkrosa jokatu da hilaren 22an, 11:00etan hasita. Pedro Etxeberria eta Fran Aizpurua antolatzaileekin hitz egin dugu lasterketa berriaz.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: LEIRE ZEARRETA

ERRETRATUA





Duela hiru urte murgildu zen Pedro Etxeberria txakurkrosen munduan. Iaz Espainiako Liga eta Kopa irabazi zituen Zura txakurrarekin, eta aurten beste urrats bat egitera animatu da: Zumaian bertan lasterketa bat antolatzea. Horretarako, Zumaiaiko Udaleko kirol teknikari Fran Aizpurua izan du laguntzaile.

Pedro, zerk bultzatu zaitu Zumaian txakurkrosa antolatzera?

Beti Euskal Herritik kanpora ibili behar izan dugu, hemen Euskal Herrian proba bakarra zegoelako, Errenteriako. Gipuzkoako korrikalariok gure artean hitz egin genuen eta erabaki genuen bakoitza saiatuko zela bere herrian proba bat sortzen, Gipuzkoan proba gehiago egoteko eta Gipuzkoako Liga sortzeko helburuarekin. Hori izan da abiapuntua.

Eta orain Gipuzkoan zenbat proba jarriko dituzue martxan?

Orain Gipuzkoan sei lasterketa daude, eta guztien artean Gipuzkoako Liga osatu dugu: Donostian, Jaizkibelen, Zumaian, Tolosan, Errenterian eta Oiartzunen dira probak eta sailkapen nagusi bat egingo da onena erabakitzeko. Txapelketa korrikalarion artean antolatu dugu,

“Politena litzateke jendea San Lorentera igotzea proba ikustera”

federazioak ez du parte hartu —Neguko Kirolen Federazioan barruan sartzen da txakurkrosa—.

Fran, Pedrok zuregana jo zuenean txakurkrosa antolatzeko kontuarekin, zer pentsatu zenuen?

Egia da Zumaian beste lasterketa batzuk ere baditugula, baina ikusi genuen proiektu zabalago baten barruan zegoela, Gipuzkoako Ligako parte zela eta antolatzeko moduan ginela.

Proba berria izanik, zerotik hasi behar. Ibilbidea nola erabaki zenuen?

Fran: Pentsatu genuen Algorri aldean da goeneko flyscharen lasterketa egiten dela eta hobe zela beste ingurune bat bilatzea. Orduan otu zitzaigun San Lorente aldean saiatzea. Leku polita da baina zumaia-

kok ez dute ezagutzen. Oinez joan daiteke eta kotxez ere bai. Uda parteko larunbat goiz batean joan ginen biok ibilbidea aztertzera. Victoriano Arratetik abiatuta [Aitzuri kaletik, zehazki], Kanteatik gora San Lorentera igo ginen eta ikusi genuen han goian posible zela hiru kilometroko ibilbidea osatzea. Gero handik berriro jaitsi eta Victoriano Arratera bueltatzeko. Zazpi kilometroko ibilbidea prestatu genuen. Proba ikusteko leku ona da San Lorente, hango bi bueltez gain Victoriano Arraterako bidea ere ikusten delako. Politena litzateke jendea San Lorentera igotzea proba ikustera.

Zer ezaugarri ditu, nola definituko zenukete?

Pedro: Teknikoa da jaitsieran. Eguraldiak asko baldintzatuko du. Astebete lehenago euriarik egiten ez badu ondo egongo da, baina euria egiten badu labaina egongo da, batez ere San Lorentetik behera. Hori izango da punturik arriskutsuena. Beste arriskua litzateke Kanteatik San Lorenterako aldapan gora doazenak eta behera datozenak gurutzatzea. Txakurak gurutzatzea arriskutsua da. Horregatik, San Lorenten bi itzuli egitea pentsatu dugu, hori saihestu nahian.

ZUMAIKO I. TXAKURKROSA

Urtarrilak 22 Enere • 11:00h

I. CANICROSS ZUMAIA

FITXA

Zer: Zumaiko I. Txakurkrosa.
Gipuzkoako Txakurkros
Ligarako puntuagarria.

Noiz: Urtarrilaren 22an.

Ordua: 11:00etan.

Ibilbidea: Aitzuri kalea,
Kantea baserria, San Lorente,
Kantea baserria, Aitzuri kalea.

Distantzia: 7 kilometro.

Pedro Etxeberria
eta Fran Aizpurua
antolatzaileak.



Izen-ematea: harririkrosa.com

IBILBIDEA / recorrido 7 Km.

● Urtarrilak 22 Enere • 11:00h

P parking parte hartzaileak / parking participantes

● ibilbidea / route



Lasterketak antolatzen nahikoa esperientzia badago Zumaian, baina txakurkrosa antolatzeko baldintza berezirik bete behar al da?

Pedro: Bai. Adibidez, ibilbideari dagokionez, arauak dio %10 baino gutxiago izan behar duela asfalto gainean, txakurrek oinetan minik ez hartzeko. Gainera, proban parte hartu aurretik albaitariaren kontrola pasa behar dute, bakuna guztiak jarrita izan behar dituzte, eta txakurrak sasoian egon behar du. Edozein txakur ezin da atera. Kontrolerako txip bat jartzen zaio txakurrari eta txip hori gabe ezin da parte hartu.

Txakurrak edukitzeko lekua ere beharko da.

Fran: Txakurrak gurdian ekartzen dituztenez, pentsatu dugu lasterketaren egunean Herri Eskolako patioa irekitzea eta aparkaleku bezala erabiltzea. Eta Victoriano Arrateko erdiko plaza oso egokia da goizeko 9:00etatik proba hasi arteko bi orduak txakurrak bertan edukitzeko.

Zenbat korrikalari espero dituzue?

Pedro: Donostian, Ligako lehen proban, 80 korrikalari inguruk eman zuten izena.

Azaroko uholdeen asteburua izan zen eta 60 izan ziren helmugan. Pentsatzen dugu hemen ere 60-80 inguru izango direla. Eta ia denak gipuzkoarrak.

Lasterketa antolatzeko dirua nondik lortu duzue?

Fran: Udalak emandako laguntzaz gain, azpimarratu behar da Victoriano Arrate inguruko taberna eta kafetegiek eman diguten laguntza. Oso ondo hartu dute lasterketaren ideia. Gainontzekoa, izen-emateetatik aterako dugu.

Pedro, hiru urte daramatzazu txakurkrosen munduan. Badirudi zaleztasuna zabaltzen ari dela.

Hiru urte hauetan afizioak gora egin du. Lehen hamar karrera izaten ziren Espainia guztian eta 60 bat korrikalari biltzen ginen. Orain probintzia guztietan daude, asko data beretan, eta hala ere 80 biltzen gara lasterketa bakoitzean. Gipuzkoakoa harrigarria da. Mailak ere gora egin du, txakurren prestaketa, arraza egokienak biltzen dira...

Eta antolatzailerik izanik, parte hartzeko aukerarik izango al duzu?

Ligako sailkapen nagusirako, sei probeta-

tik bostek puntuatzen dute, batean kale egiteko aukera dago. Nire asmoa zen Zumaiko gordetzea, baina, lesionatuta egon naizenez, Donostiako karreran ez nuen parte hartu eta orain denak egin behar Liga lehitzeko. Egia da urduri egongo naizela, antolaketan ere pentsatzen, baina nire intentzioa lasterketan ateratzea da.

Eta denboraldirako zer helburu jarri diozu zure buruari?

Gipuzkoako Ligan zentratuko naiz. Espainiako Kopa egingo dut babesleekin konpromisoa daukadalako, baina irabazteko aukerarik ez daukat lehen bi lasterketak galdu nituelako lesioagatik, eta proba guztiek puntuatzen dute. Beraz, Gipuzkoakoa da helburua.

Zeintzuk dira zure aurkari nagusiak?

Gipuzkoako Ligan edonork har dezake parte, kanpotarrek ere bai. Iskan-der Rodriguez bizkaitarra Espainiako Kopan oso ondo dabil eta aurkari gogorra izango da; eta gipuzkoarren artean Eneko Agirre, Jon Gonzalez eta Donostiako irabazle Iñaki Garaban oso ondo dabilta. ■



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Zumalako Udala

herri-aurrekontuak 2012

**Herri-aurrekontuak 2012
prozesuko ondorioen
azalpen bilera**

**Urtarrilak 19, osteguna
19:30ean
Udaletxean**

URTARRILA

IKASTAROA

Ikastaro berriak: pintura tailerra, dantza eta mugimendu terapia, yoga, antzerki tailerra, tai chi, fieltro tailerra, eskulanak, ilustrazio ikastaroa, zeramika, txakurrekin bizitzen ikasteko tailerra. Izen-ematea, urtariraren 16ra arte.

Informazioa eta izen-ematea : 943-861056

– kulturetxea@zumaikoudala.net - Alondegia kultur etxea. Urtarrilaren 28an hasita, literatur tailerra Yolanda Arrietarekin.

URTARRILA

Astelehena, 23

18:00etan Forondan, Hitzaldia: "Haur txikien garapen emozionala". Haurreskolek eta Udalak elkarlanean antolatuta.

Osteguna, 26

22:00etan zine forum.

Ostirala, 27

22:00etan Aita Marin, antzerkia: TXINTXETA taldearen "BODOLOGUAK".

Igandea, 29

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: KONTAKATILLU taldearen "Katilukadak".

ANTZERKIA

ZUMAIA

URTARRILAREN 27 AN
TXINTXETA taldearen "Bodologuak" 20:00etan eta 22:00etan

URTARRILAREN 29 AN
KONTAKATILLU taldearen "Katilukadak" 12:00etan

OTSAILAREN 20 AN
Inauteri antzerki sailaren barne: Pirritx eta Perrotx taldearen "Zazpikelorea" 15:00etan eta 17:30etan

OTSAILAREN 24 AN
TXALO taldearen "Hil arte bizi" 22:00etan

MARTXOAREN 9 AN
Teresa Caloren "Carrera de obstáculos" 22:00etan

MARTXOAREN 18 AN
BOROBIL taldearen "Alibaba" 12:00etan

MARTXOAREN 23 AN
TANTAXA taldearen "Ipar haizearen kontra" 22:00etan

URTARRILAREN 27 AN
HIL arte BIZI

OTSAILAREN 24 AN
TXALO taldearen "Hil arte bizi" 22:00etan

MARTXOAREN 9 AN
Teresa Caloren "Carrera de obstáculos" 22:00etan

MARTXOAREN 18 AN
BOROBIL taldearen "Alibaba" 12:00etan

MARTXOAREN 23 AN
TANTAXA taldearen "Ipar haizearen kontra" 22:00etan

ZINE FORUM

22:00etan

URTARRILAK 12
NO HABRA PAZ PARA LOS MAGIADOS

OTSAILAK 23
another year

MARTXOAK 6
NADER Y SIMIN UNA SEPARACION

URTARRILAK 26
Melancolia

OTSAILAK 9
EL HOMBRE DE AL LADO

MARTXOAK 22
TOURNEE

ZUMAIA



UKENDU

PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



zapateixa
Konponketak

Maitatu Ukanaga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaiak • 943 861 252 • 652 727 740



Zumaia Hotela

Jaletxea
Kalategia

Alai auzategia, 20750 Zumaiak tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiamotor@telefonica.net



ZUMAI

AUTO-ESKOLA



- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azeptatzen
- **GURE HELBURUA:**
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behe • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika



Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

TXALAPARTA

OPARIK

Angelos Soraa, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637

Nahi nuke

Bota bertso bat! lehiaketako irabazlea

Doinua: "ETAren suetenetik (Xabier Silveira)"



Lorategi grisari so
ezpain-ertzean Winstona,
Gasherbrum II-ra hartuta
bi oxigeno bonbona,
joan gintezke Berlina,
joan gintezke Kingstona,
izan zitekeen bikaina,
izan zitekeen kristona.
Gela zuri bezain hotza
omen nire zain dagona,
erotuta egoteak
horixe baitauka ona,
bihar ere amastera
itzuli nahi nuke hona (bis)

JOKIN CALVO

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke (bikoiztuta)

Zer nahi nukeen jakin asmotan
ta nahi nukeen horren zai
nire leihotik kanpo aldera
begira nengoen lasai.
Ta zer nahi deten jakin ezinik
denborak aurrera darrai, ezintasu-
nak etsita nauka
eta ni ez nago alai. (bis)
Konturatu naiz nire barnean
badetela hainbat ezbai:
zer nahi ez deten badakit baina
zer nahi deten baneki... ai!
Nere leihotik kanpora gehio
begiratzerik ez det nahi!
Barru-barrutik saiatuko naiz!
Aurkituko det nolanahi!
Hustuko ditut leiho barrenak!
Jarri zentzu denak ernai!
Azken finean izan nahi nuke
nahi detena lortzeko gai
larararai larai larai...
nahi detena lortzeko gai.

JOSU MANZISIDOR

Doinua: Nere gogoa began dijoa

Nahi nuke izan ausartagoa
horren aguro ez etsi
nahi nuke jakin askoz gehiago
dakidana erakutsi
nahi nuke joan azken mugara
baina inoiz ez iritsi
eta nahi nuke hori lortzeko
kapaz naizela sinetsi.



AEG garbigailua

L72750

- 1.200 bira/min
- 7 kg



~~449€~~

399€

ZE 133€ x 3

BALAY garbigailua

3TS 74120X

- 1.200 bira/min
- 7 kg

INOX



~~499€~~

449€

ZE 150€ x 3

%10 beherapena

- ✓ Errekorte hau aurkeztuaz, 50€ eta 1.000€ bitarteko erosketetan egingo da.
- ✓ Epea 2012ko urtarrilaren 15etik 31ra.
- ✓ Erosketa bakoitzean bat erabil daiteke.



ELECTROLUX

indukzioa

EHD 60010P

- 3 indukzio gune

~~419€~~

349€

ZE 166,33€ x 3

AEG kojuntua

indukzio plaka +
labe pirolitikoa



~~999€~~

899€

ZE 300€ x 3

EDESA Konbia

urban F670

INOX

- No frost
- 200 x 60

~~629€~~

579€

ZE 193€ x 3



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

**URTARRILEAN eta OTSAILEAN eskaturiko
sukalde eta bainugelan BERRIKUNTZA
aurrekontua onartzean: OPARIA seguru!**



**SUKALDERAKO
LED TELEBISTA**

**BAINURAKO
ISPILUA**





zumartian



ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN
LEHENENGO SARIA
TXINGURRI LORE DENDA
Kolorea eta konposaketagatik



URTEKO MERKATARI-OSTALARI
ONENAREN SARIA
LOURDES OSA
Iniziatiba, konpromisoa
eta hobetzeko gogoagatik